

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Beste enpresa batzuekiko aliantzak eta akordioak beharrezkoak dira enpresa baten funtzionamendu egokiena ziurtatzeko. Horrela, negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko edo baliabideak eskuratzeko eramaten dira aurrera elkarte, aliantza eta akordio bereziak. Hauek bi entitateen artekoa izaten da eta ongi doala ziurtatzeko bi enpresen onura bermatzea beharrezkoa da.

Gure enpresaren ongarri garrantzitsuenak garraiobide desberdinak dira, hau da kotxe, motozikleta, autokarabana edo bestelakoak. Horrela, hauek egoera ezin hobean egotea beharrezkoa da gure bezeroen esperientzia hobereena izateko. Hau bermatzeko, Gurpil-Bidez-ek Oñatiko lantegi baterekin aliantza bat egitea ideia ona dela uste dugu. Horrela, gure enpresak eskaintzen dituen mugimenduak aurrera eramaten dituzten auto eta bestelakoak egoera ezin hobean egotea bermatzen dugu. Baina zer irabazten du lantegiak? Gure produktuak bertan konpontzea ziurtatzen diogu eta berak, trukean, beherapen bat eskainiko digu lan guzti hauek egiteagatik.

Gainera, kontuan hartzekoa da bezeroaren ikuspuntutik, onuragarria dela aliantza hau. Izan ere, erakargarria izan dezake zerbitzu hau lortzea gure aplikazioaren bidez. Haien kotxea guri uztean lantegi baten konponketa irabazten baitute.

Bestalde, gure funtzionamendu egokia bermatzeko, gurpildun garraiobide hauek gordetzeko leku baten beharra agertzen da. Horrela, hainbat aliantza posible agertzen dira. Autokarabanak bezalako garraio handientzat herrian sakabanatuta dauden aparkalekuetan uztea ideia ona izango zen. Horrela, beherapen txiki bat egitearen truke, gure baliabideak bertan utziko genituzke.

Arrasateko Feu Vert aliantza ere erabilgarria izan daiteke. Bertan jada alokatzeko autoak gordetzen dira, beraz funtzionatzen duela badakigu. Horrela, bertan autoak gordetzeko lekua dugu, Feu Vert enpresarekin aliantza egiten badugu, bertan ere erreparazioak egiteko lekua dugu eta azkenik, gasolindegiko desberdinekiko gertutasun hura lortzea bermatzen digu.

Azkenik, etorkizunerako aliantza bat auto fabrikatzaile desberdinekin izan daiteke. Hauen autoak erabili ditzakegu eta haiek ere benefizio ekonomikoa lortu dezakete. Baina horrelako enpresen tamainaren dela eta, aliantza hau konplexuagoa eta beranduago egiteko aliantza bat da.